

laburrean

■ Legez kanpo etorriak ziren 65 zairetar hegazkinez kanporatu ditu Frantziako Poliziak

FRANTZIAKO Barne Ministerioak atzo jakinarazi zuen Frantzian, Alemanian eta Holandan legez kanpo zeuden 65 zairetar Air Charter konpainiako hegazkin batean Kinshasarat bidali zituztela herenegun arratsean. Jean Louis Debre Barne ministro izendatu zutenetik antzeko 14. operazioa izan da eta hirugarrena, berriz, Europako Batasuneko beste herri batekin edo batzuekin batera egindakoa. Izan ere, herenegungo kanporatuen artean, 13 zairetar Alemanian harrapatuak izan ziren eta 10, berriz, Holandan. Herenegungo operazioaren berri ematearekin batera, Frantziako Barne Ministerioak jakinarazi zuen Frantzian bete beharreko baldintzarik gabe sartu nahi zuten 70.000 atzerritar kanporatu zituztela iaz eta etorkinak legez kanpo sartzen zituzten 1.514 mugalari atxilotu zituztela. X

■ Erreskatea ordaindu ondoren Cordon aske utzi zutela berretsi du GRAPOK

PUBLICO CORDONEN bahiketan parte hartu zuten Enrique Cuadra eta Jose Ortin GRAPOko kideek Miguel Moreiras epailearen aurrean berretsi egin dute enpresaria abuztuan utzi zutela aske, bere senideek Parisen erreskatea ordaindu eta gero. Hain zuzen ere, Cordonen suhiak 400 milioi pezeta eman zizkien Parisen eta beste 600 milioi agindu zizkien enpresaria aske geratzeari. Herenegun egindako deklarazioan, Cuadrak eta Ortinek ziurtatu zuten dirua abuztuaren 9an jaso zutela eta 17an, goizeko seiak eta erdiak inguruan, Cordon libratu zutela Bartzelonan, Sarria auzoan. Bederatzietan bere senideei hots egin zutela azpimarratu dute GRAPOko kideek. Ortinek eta Cuadrak deklaratu zuten Cordonek agiri faltsuak eskatu zizkiela aske uzten zutenerako, ezkutuan jarraitu nahi zuelako, baina ez zuten onartu. Azaroan, atxilotu zituztenean ere, antzekoa deklaratu zuten. X

■ Enresak ez du oraingoz 'hilerri nuklearrik' eraikiko

HONDAKIN erradioaktiboak tratatzeaz arduratzen den Enresa erakundeak atzeratu egin ditu hilerri nuklear bat eraikitzeke planak, atzo El Pais egunkariak kaleratu zuenez. Bi dira Alejandro Pina Enresako lehendakariak hilerri nuklearrak oraingoz ez egiteko eman dituen arrazoiak: jendeak bere herrian ez duela horrelakorik nahi eta oraingoz zabor nuklearra biltegi handietan bil daitekeela lur azpian sartu gabe. Espainiako zentral nuklearrek batez beste 30 urteko bizia dute eta tarte horretan 9.000 tona hondakin oso arriskutsu —milaka urteetan arriskua dutenak— pilatuko dira. Gaur egun dagoeneko 1.800 tona daude, zentral nuklearretan beraietan bilduta. Hondakinak gordetzeko oraingoz aurkitu duten era onena egonkortasun handiko zulo geologikoetan sartzea da. 2000-2005. urteen artean Enresak Gobernuari hilerri nuklearra kokatzeko zenbait leku proposatuko dizkio. X

■ Bi hilabeteko geldialdiaren ondoren, lanera itzuli dira Andaluziako arrantzaleak

ANDALUZIAKO portuetako 150 arrastontziak Marokoko kaletan daude berriz bi hilabeteko geldialdi biologikoaren ondoren. Herenegun gauean atera ziren portuetatik eta atzo goizaz geroztik ari dira lanean. Arrantzaleak kexu dira beraiek Andaluzian izan diren bitartean arrantzale marokorrek, enpresa mistoetakoek eta beste herrialdeetakoek kaletan arrantzan egin ahal izan dutelako. Harrapatutako arrain horren zati bat Espainiako azoketara heltzen da «eta ohitura arriskutsuak sortzen ditu arrain saltzaileen artean», salatu du Rafael Montoya Algecirasko kofradiako buruak. Arrantzale andaluziarrek salatu dute iaz zazpi hilabetez —maiztetik azarora— arrantzan egin ezinean izan zirela, Marokok eta Europako Batasunak akordioa lortu zuten arte. Martxoaren 15etik aurrera bi hilabetez tretza moduaren bidez arrantzatzen dutenak izango dira gelditu beharko dutenak. X

■ 'Eskale psikopatak' Alacanteko espetxeko ospitale psikiatrikoan segituko du

HAMAR lagun hil eta beste bat hiltzen saiatu zen Francisco Garcia Escalerok Alacanteko espetxeko ospital psikiatrikoan jarraituko du, atzo Madrilgo Entzutegi Probintzialak onartu zuenez. Epaiak errugabetu egin du eskale psikopata deitutakoa, eroaldietan jokatzeko zuela frogatuta jo baitu. Epaiak dioenez, Garcia Escalerok 20 milioi pezetako kalte-ordaina eman behar die biktima baten senideei eta beste hamar milioi pezeta beste bati. Eskaleak ezingo du, noski, dirutza hori ordaindu. Gainontzeko biktimen familiek dirulaguntza publikoak eska ditzaketela dio Madrilgo Entzutegiak. X

■ Epailleak Jesus Gil errugabetu du

SANTOBUONOKO dukeari iruzur egiteaz akusatuta zeuden Jesus Gil Marbellako alkatea eta beste lau lagunak errugabetu zituen atzo Madrilgo Entzutegiak. Talavera de la Reinan (Toledo) etxalde bat erostean Santubunoko dukeari 600 milioi pezeta gutxiago ordaindu nahi izatea egozten zion fiskalak Gili, dukeak gaixotasun psikikoa zuela baliatuz. Epailleak, oster, iritzi diote dukea bera izan zela etxaldearen truke aurreikusitako dirua baino gehiago lortu nahi izan zuena. X

Beste hiru urterako FOko buru izendatuko dute gaur Blondel

Troskistek manipulatzeko dutela diotenek botoen % 20 jaso dituzte

Marc Blondel FO sindikatuko buru izendatuko dute gaur bigarren aldikoz Konfederazioko Batzorde Nazionalako kideek. Sindikatu honen historian lehen aldiz, jarduneko idazkari nagusiaren aurka azaldu den hautagaiaren alde 18. kongresuko ordezkarien % 20k baino ez dute bozkatu. Baliteke, hala ere, alde batetik zein bestetik izandako erasoek aztarnak uztea.



Viannet, Blondel eta Notat sindikatuburuak Eliseo jauregian Chiracen zain, joan den urtarrilean.

PHILIPPE WOJAZER / REUTERS

Allande Sokarros / Baiona

FO sindikatuko idazkari nagusia ez du Kongresuak aukeratzen, baizik eta Parisko Porte de Versailleseko aretoan lau egunez 3.000 ordezkari baino gehiago bildu dituen 18. kongresuaren amaieran gaur bertan egingo den Konfederazioko Batzorde Nazionalaren (CCN) bilerak. Zalantza izpirik ere ez dago Marc Blondeli beste agintaldi bat emango diola FOko 105 departamendu batasunen eta 33 federazio nazionalen ordezkariak osatzen duten egitura honek. Izan ere, sindikatuko parlamentu gisakoa den egitura horretan Blondelen aldekoek oso gehiago zabaldu dute eta oposizioarik ia ez da nabaritzen.

Batzorde Nazionalak ditu sindikatiko gobernua den Konfederazioaren Bulegoko hamalau kideak izendatzen, eta honek, berriz, horien artean aukeratzen du idazkari nagusia. Konfederazioko Batzorde Nazionalari tokatzen zaio Batzorde Eragileko 49 kideak izendatzea ere, horien barnean direla Konfederazioaren Bulegoko 14 kideak. Sindikatuen jardura kontrolatzen duen egitura hau urtean hiru aldiz biltzen da. Egituraketa hau ikusita, erraza da ulertzea oposizio batek ez baldin badu nagusitasuna hartzen edo bederen nahiko indartsu ez bada azaltzen Kongresuan, FOko goi egituretan ez duela inolako eraginik izaten.

Hain zuzen ahulegiak geratu dira Jacques Maire buru zuten

FOko kritikoak, zeren herenegun arratsaldean Marc Blondelek aurkeztutako jardura txostenak 3.000 kongresukideen botoen % 78,1 jaso baitzituen eta % 20,3 baino ez baitziren izan Mairek azalduetako jarreraren alde. Kritikoek, ordea, espero zuten botoen % 30 eskuratzea. Hauek, sindikatuen barne ibilerako demokraziarik eza salatzeaz gain, FOko kide diren troskistek manipulatu dutela iritzi zioten. Hau, alde batetik, erabat gezurtatu zuen Blondel, eta, bestetik, ozenki azaldu zuen CGT sindikatuarekin ez dela hurbiltzarik izango, eta are gutxiago bateratzerik: «Ez da nire gogoan behin ere izan, inork ez baitu ahaztuta komunistek gintuztela gure etxea zen CGTtik kanporatu».

PT, alderdi ezkutua

Julen Arriola / Paris.- Jacques Marie Parisko FOko buruak «sindikatuaren barnean troskistek gero eta botere handiagoa dutela salatuz aurkeztu zuen bere hauta-gaitza Marc Blondelen aurka. Esaldi horren atzetan alderdi bat dago: Partit des Travailleurs (Langileen Alderdia, PT). Misterioz inguratutako erakunde da, ia ezezaguna talde politikoen artean, baina, halere, Jacques Marieren arabera, FOko erantzukizun handiko karguetako asko bereganatu dituena.

Familia troskistako kide dela dio Langileen Alderdiak, eta korrante honetan ohikoa denez, bereziki gogorak dira Frantziako beste bi alderdi troskistekin, hau da, Alain Krivineren Liga Komunista Iraultzailearekin (LCR) eta Arlette Laguillerren Lutte Ouvriere-rekin (Langileen Borroka). Pierre Lambert ezezaguna da alderdiko burua. Ortodoxia troskistari jarraituz, Langileen Alderdia sindikatu handietan eta masa erakundeetan sartu nahian dabil.

Gutxi dira talde honek Frantzian omen dituen 4.000 militanteetako bat ezagutzen dutenak. Ezkutuan egoteko exijitzen zaie militanteei. Ez dira alderdi gisa azaltzen Frantziako hiriburuan egin ohi diren manifestazio sindikal eta sozial ugarietan, eta ez dute parte hartu Parisko ezker plurala biltzeko egin diren zenbait zinegotzi saioetan.

Bere indarraren erakusgarri egoitzak ditu. Parisen lau solairuko eraikuntza zahar baina erraldoia du, Faubourg

Saint Denis auzoan. Bertan 40 lagunek egiten dute lan, alderdian, aldizkarian...

1990ean eta 1991n Euskal Herriarekiko jarrerak barne krisia eragin zuen PTn. Horren ondorioz, Pedro Carrasquedo Batzorde Zentraleko kidea kanporatu egin zuten. Carrasquedo, beste 30 lagunekin, La Commune talde berria sortu zuen. 1992an, Carrasquedo atxilotu egin zuten eta iazko azaroan errugabetzat jo, beste 80 lagunekin batera. X